ABERI
JAUN-GOIKUA ETA LAGI-ZAHA

HERRIA

1 IGANDEA
ARGIA
ASTEROKOA
URTEKO : 5,50
Bakoitza : 0,10

BASERRITARRA

AMAIUR

Ibaizabal
EGUNA

PAXPOLIN

ARIEL
EUSKAL-HERRICO GASETA.
YAKINTZA
REVISTA DE CULTURA VASCA

EKIN

EUSKALZALE
ASTEAN ASTEANGO ALDIZKARIA

ESKUALDUNA
JOURNAL BASQUE-FRANÇAIS HEBDOMADAIRE

BERTSOLARIYA
19
Euzkadi

Euskal Herriko Prentsa, XVIII. mendetik 1945era

Maria González Gorosarriren lana osatzera dator liburuxka hau. Euskal Herriko prentsa denbora luze horretan nolakoa izan zen gertutik ezagutuko dugu, hainbat argitalpenetatik jasotako berriak atera ziren moduan emanda.

Euskara guztietako moldeak integratzen saiatu gara, ikuspegia zabala izateaz batera, tokian tokiko eta aldian aldiko ezaupidea egin ahal izateko. ***Euskal prentsaren ametsa, Euskaraz zergatik, Euskaraz jorratutako kazetaritza*** eta ***Bonbardaketak*** dira propio bereizitako atalak. Aurrena, euskal prentsaren beharra adierazita agertuko da, hizkuntza gehienetan bizi izandako aldarrikapena euskaraz ere izan bazela ikus dezagun. Hurrena, euskararen auzia sasoiko euskal prentsaren ardatzetako bat izan zela konturatuko gara. Hirugarrenik, euskal kazetaritzak landutako eremu zabalera sartu-irtena egingo dugu, edozelako berriak leituz. Azkenik, Gernika suntsitu zutenekoa zelan azaldu zuten jakingo dugu, batzuen eta besteen bertsioak alderatuta; baita Bigarren Mundu Gerraren amaierari buruzko narrazioa ere, lerratze ideologikoa oso agerikoa azaltzen duena.

Euskal irakurleak altxor hauek guztiak eskura ditu teknologia berriei esker. Azken urte hauetan hainbat ekimen aberats eta interesgarrik bere egin dute Internet, eta euskarari ate berria eskaini. Horiek barik liburuxka honek ez zuen biderik izango:

www.armiarma.com egitasmoaren baitako *Euskal Prentsaren Lanak* - www.hemeroteka.com (*Euskalzale, Ibaizabal, Eskualdun Ona, Napartarra, Argia, Euzkadi, El Día, Amayur eta Eguna* kontsultagai)

www.bizkaia.net/kutlura/euskara/ Bizkaiko Foru Aldundiko ataria (*Euskalzale, Ibaizabal eta Eguna*, besteak beste).

www4.gipuzkoa.net/hemerotekakm (*Bai, jauna, bai, Baserritarra, Bertsolariya, Bizkaitarra, El Día, Escualduna, Euskaldun Ona, Euskadi Roja, Euskal Esnalea, Euzkadi, Gure Herria, Yakintza…*).

24 IGANDEA

ARGIA

ANTEDOKOA

¡AGUR!

Gure izkera.

EIZTARIA

Diputazioko lendakaria'k.

ENTZUN:

Eiztarko iskirtoa.

EGUNA

ATZO GOIZEAN

Paxisten egazkiñak Tabira zafaren gañean

Durango'ko Miren deunaren elizara bonba ugari jaurti zituen.-Kisto'ren Odol deuna orma eta zoztor artean ixurita.- Otoi egiten egozan monja bigunak ill.- Jaunartzeko ziran gudariak odoletan, gorputzak zatituta.-Meza esaten iñarduen abadeak, berun illorak jota.

Tabira odoletan!

EGUNA

PAXISTEN EGAZKIÑAK

Gernika, euzkotaŕen uri maitea, biŕindu nai izan dabe zearo

Aritza zutik gelditu da, ordea, ondamendi oŕetan. Zutikago euzkotaŕen gogoa, baña.

Guda oñetako agiriak

GABERO IZPARRAK

Donosti Duna Ibakaña

Bure inakartiei

Euskal prentsaren ametsa

CALIFORNIA-KO ESKUAL HERRIA 1893ko uztailak 15, 1. zenbakia, 1. or.

"Bertze nazione guziek beren gazetak badituzte eta gu haimbertze garelarik hedatuak Pacifico-ko kostan ez da yustu baizik yunta guiten denac berriketari baten medioz. Gure intresak –hemen bederen– igualsuak dire eta gure mintzo ederraren medioz bat bertzen herriak yakiten ahal ditugu gure lekhutik hihuitu gabe [...]."

1902-ko Irailla-ren 21n

EUSKEREA TA BERE ARERIOAK

–¡Ene! ¿Euskeraz bere eguiten dira periodikuak?

–Bai, guizona; euskeraz berba eguiten dogun leguez, bardiñ edo obeto.

– ¿Euskeraz eguin leiz ba?

– ¿Zergaitik ez?

– Erderaz baiño eziñ eguin leikezala ta uste izan dot.

TIERRA VASCA

1937ko otsailak 14, 54. zenbakia, 4. or.

Euzkadi bat da eta guk ez degu egin nai ezberdintasunik bere zabaltasunean. Baño aurrerago esango detana egia da: Bizkaia ez dala Gipuzkoa. Gipuzkoa-n dauden irakurle euskaldunakin izparringi bat ederki biziko da euzkerazkoa, baina ziur egon Gipuzkoako irakurle geienak Bizkaian egongo ezbalitazke 'Eguna' ezin bizi [...]. Gipuzkoako nekazariak irakurtzen oituta daude euskeraz. Gipuzkoan asko egin da aldizkingi, asteroko eta egunerokoen bitartez, baño Bizkai-ko nekazariak ez dute euskeraz irakurtzek o zaletasunik edo afiziorik [...]. Gipuzkoan 'Argia' asterokoa amar edo amabi milla saltzen ziran eta geiena basetxetan. Bizkaia-n 'Ekin' asterokoa, 'Argia' idurikoa, iru milla ez ziran saltzen basetxetan.

IMANOL IRAURGI

1929 Garagarrilla 16 Igandea,
425'g. zenbakia IX'g. urtea

EGUNKARIA BADATOR!!!

Bai, jauna! Egunkaria berbera ezpa-dator ere, ori etorbidean jarri bearra, zirt edo zart egin bearra, bai, badator.

"Euskaltzaleak" lan aundia egin du bi illabete auetan, ixilik egon ba-da ere.

Orain, lan orren berri eman bear du. Guzioi, alegia, garbi adierazi zenbat bear dan, diruz, arpidez, iragarkiz, eta abar, eta abar, egunkaria bereala egiteko.

ARGIA

Guziok zaudete irrikitzen ori jakiteko, ezta ala?...

Bada, atozte il onen 27'garrenean (arratsaldeko zazpiretan) eta datorren illaren 2'garrenean (arratsaldeko bost eta erdietan) "EUSKO - IKASKUNTZA"-ra, Diputazio--goian.

Batez ere, arren ta arren itzaldi bi oietara etortzea eskatzen diegu EuskaltzaleBatz edo Federación de Euskeristas delakoaren Bazkun guziei, ordezkari bitartez: EUSKALTZAINDI, JAUNGOIKO--ZALE, EUSKERAREN ADISKIDEAK, ESKUALTZALE BILTZARRA, BARAIBAR-TALDEA, ta abar. Ordezkari bana bialtzea ORDAINDU EGIÑGO ZAIE.

Azkenik, lengoak gutxi badituzu, irakurle, entzun belarriertzera esan bear dizugun zertxo bat: itzaldi oietara ba-zatoz, gauz jakingarriak irakatsi ezezik, esku-sari bat, "erregalo" bikain bat emango dizugu. Ez iñori esan, baña... EGUNKARIA ESKUAN IPIÑIKO DIZUGU.(¡¡¡...?...!!!)

"EUSKALTZALEAK"

Euskaraz zergatik, Euskal Herri euskalduna...

EUSKALDUNA

"Euskaldun arteko askok dauke alper edo ezer ezetako gauzatsak euskeraz berba egitia, eta kaltarkizun arteraiño be [...]. Ama euskalerriaren seme onak diriala daukenak egiñik euren buruak, egiñ biar leuke egitiarren berak itz egin eban itzkuntzan. Baña euskalerriak orain be euskeraz itz egiten dau, eta bere semiak egin biar dabe beti euskeraz, dakienak, eta eztakienak biar dabe ikasi [...]. Ez dakite lege zarra ta euskeria egon diriazala alkarturik beti, ez dabelako auskeriak sartzen itsi geure mendietan izkune ta gogamen tsarrik."

Ibaizabal

1902-ko ilbeltzaren 19n

BILBO-KO EUSKALDUNENTZAT

Oraiñ denpora asko eztala, adiskide bat eta biok Santo Domingo-tik Bilborantza, Begoña-tik zear guentozala, Andra-Mariaren eleiza inguruan aurkitu guendun mutil koskor pillochu bat. Nire lagunak itaundu eutsen ia euskeraz ekien; ezetz erantzun euskuen.

Gure itauneak lotsatu eguin ebezala esan zeikean, bada, euretariko batek bere burua garbitu eban onetara: Nire aitak eta amak badakie, bai-

ña ezteuste sekulan euskeraz berba eguin da eztot ikasi; ezpadakit, eztaukat nik errurik.

Buru-garbite au ikusita esan gueutsan: ¿iri, orduan, gustauko lekik euskeraz jakitea? Ta mutilko zoliak erantzun euskun: *Yo lo que digo es que de todo es bueno saber* (1).

¡A, mutilchu polita, eure amar amabi urte laburretan, ire gurasoak baiño zentzun gueiago erakutsi euan!

Ume aren erantzunak echatazan joan gogotik egun askotan.

Ezteuste euskeraz berba eguiten neure gurasoak. Bilbon bizi direan euskaldunak, banakaren bat izan ezik, ori eguiten dabe guztiak euren seme-alabakaz.

¿zegaitik eteda? Urrean izango da erdera barik gueratu eztaitezan bildurrez; baiña, orregaitik bada, zentzunbakotasun andia da benetan. ¿Bilbon, erdera ikasiko ezetedabeen bildurra? Eguin daigun, guraso batek nahi dabela, bere semeak ez erderarik ikastea Bilbon; aleguiñ guztiak eguin da be, erderea ikasiko leuskioe semeak berak gura nai gurez, Bilbo erdalerria dalako berba-eguikeran.

Orisse berberori pasaten iake Bizkaian da Guipuzkoan, Gaztelatik datozan maisu ta osaguille ta beste bizimoduetakoai; eurak nai ezarren be, andik dakarrezan umeak laster euskeraz ikasten deutse, echetik kanpora euskera baiño besterik eztabeelako entzuten.

Beraz, uri onetan, umeak erderaz ikasiko etedabeen edo ezetedabeen beldur izatea, lelokeri andia da. Echean euskerea entzun da ikasi-arren, kalean ikasiko dau bai erderea, bearbada larregui bere.

¿Zegaitik da orren ardura larregui artutea erdereagaitik? Erderea, gaur, euskerea baiño zabalduago dagoelako, ta bizimodua aterateko premiña gueiagokoa dalako. Baiña ori alan dala ¿euskera jakiteak gachik eguingo etedeutso iñori? Ez arean. Berbeta biak daukazana bide obeagoan dago bere bizimodurako.

BLOA

(1) Nik diodana da, ondo dala guztia jakitea.

1932ko martxoak 18, 20. zenb.

"Araudi nagusi edo Konstituziñoko lege batsuk, batez ere Erlejiñuaren kaltez artez ta zuzen doyazanak, Euzkelerrijan indar gutxiago eukiko dabe [...]. Ikastoletatik, zoritxarrez, orain arte, bastartuta egon dan gure Euzkera ederra, barriro berari jaokon tokijan jarri ta ikastoletaratuko dogu, irakasle euzkeldunak euretan jarrita. Ikastola nagusi edo unibersidadea be geure-geuria ixango dogu. Guda mutillak, euren guda-aldija, atzerrijan barik, Euzkelerrijan bertan egingo dabe. Osagille, lege-gizon, notarijo, erri-zaindari ta abarr, geure artekuak, euzkeldunak ixango doguz."

1921eko abuztuak 12

"Ausarta banindadi, kitzikaño bat nezoke egin bakarrik. Gogorra da, dorpea, askotan truskila, bizkaitarren euskara. Garbiago zauku, leunago ere mendiez hunaindian derabilaguna, nahiz den gutien bat aberatsago hangoa. Ahopaldia bertzalede luzeago, eta itzulika geiagorekin, bizkaitarrek. Irakurtzen dugularik, ezin adituarekin askotan buruan min emaiten dauku."

JEAN ETXEPARE



1932ko ekainaren 21a

ESPAÑARRAK ESTATUTOAREN AURKA

Burgos'en ikusi ditugu ikustekoak, katalandarren eta euzkoen Araudi edo "Estatutoa"ren aurka. Amorruaren-amorrua burutik eginda dabil emen jentea. ¿Oarkoak ala buru-gabeak? Bata ta bestea, naski, edo nik ez dakit zer esan.

Burgos'era sartu nitzanian uste izan nuan, jan edo iruntxi biar ninduela, bertako gazte taldeak (ikasle edo "estudiantiak" noski), eskuetan zeramazkien orri batzuk darrigoz artu-erain bearran. ¡Aien deadarrak! "¡Burgos contra el Estatuto!" deadar eta deadar egiten. ainbat orri artu-erazi dizkaite, nai ta nai ez. Jarri naiz irakurtzen, eta orriaren idazburua, auxe da: "Nuestra protesta contra el estatuto".

Orri ontan ba'dago astakeria ugari; iguingarria da eta iraingarria benetan, euzkotarrentzat eta katalandarrentzat, Burgos'ko ikasliak, saloski-etxeak, latariak eta gañetiko txoriburu guzien idazki asarreak agertzen dira katalan eta euzko-araudien aurka. Geienak Gobernuari asarrez bialdutako idatzi ta urrutizparren "kopiak" dira.

Idatzi oyetako baten idazburua, auxe da: "Catedras de catalán, "vascuence", bable, gallego y caló". Asikeran onela dio: "El idioma español, hablado por más de cien millones de seres humanos, con oficialidad en más de

veinte naciones y con difusión creciente en los demás paises de Europa va a ser abandonado en diversos pedazos de su propio solar nativo".

Gero beste astakeri asko esan ondoren, onela bukatzen dute idatzi au: "En mérito de lo expuesto, suplicamos a V.E., la cesantía de todos los catedráticos de latín, griego, hebreo, sancrito, francés, inglés, alemán e italiano, creando en su lugar en todos los centros docentes cátedras de catalán, vascuence, bable, gallego y calo, imponiendo, además, al magisterio de Primera Enseñanza la obligación de iniciar a los niños en el conocimiento de dichos lenguajes".

Beste zati batek, onela dio: "Mal podrá conocer el alumno de la escuela de Comercio el precio de la butifarra en el mercado de San Cucufate, sin saber escribir el catalán ni conocer el vascuence y el gallego. El estadista no sabrá como dirigirse a los Ministerios de Hacienda en busca de datos para sus estudios si ignora que quizá el ministro de Hacienda andaluz se denomina "ministro de Guita", "ministro del Dirue" el vasconavarro, y ministro de as Cadelas" el gallego, etc., etc.

Orra zer dioten "burgostarrak" "estatuto arazo onek ematen dioten buruko-miñagatik; baña politena ez-degu agertu oraindik.

Beste zati baten, auxe irakurtzen da: "... puetso que, según la Prensa, se han de llevar a las escuelas de Primera Enseñanza aparatos de radio, debe obligarse a las centrales emisoras que todos los días hablen un ratito en catalán, otro ratito en gallego y un rato -muy grande- en VASCUENCE, y, además, por el clásico principio pedagógico de "enseñar deleitando", debe intercalarse alguno que otro disco con sardanas, "aurreskus" y muñeiras, con lo que se conseguirá desterrar el charles, el fox y el tango.

Eta onela bukatzen da beste zati bat: "Preparémonos a protestar con toda energía si se pretende establecer el lingüismo en los centros docentes. El bilingüismo encendería entre nosotros una "cruenta guerra" racial que no había de solucionarse de "boxeo", sino que habría que "ensangrentar" todos los claustros de los edificios académicos. No! Por nuetra cultura, por nuestra dignidad de españoles y por sentido humanitario, debemos de oponernos al tremendo "peligro" que significaría la aprobación de los Estatutos.

Eta azkenik auxe: "¡No! antes que el bilingüismo, "independencia" absoluta de unos y otros". ¡Bapo ziok!

Carlos Alonso erdal (republicano) idazle ospetsuak, berris, auxe diño "Diario de Burgos"en: "¡Derechas! ¡Izquierdas! Qué importa el nombre? el contenido ideario es lo que hay que apreciar. Entre las derechas castellanas, adversarias del antiestatuto geográfico, las izquierdas catalanas, enemigas del Estado español, yo, republicano, prefiero, por más "liberales" a las "derechas" de Castilla.

Orra nola mintzatzen diran azkatasunaren aldez españarrak. Euzkadi'ko integristak poztuko dira noski, au jakitean, "fuerista" amorratuak dira-ta.

"Euzkadi"tik.

ZELETA

ARGIA
ASTEROKOA
1933ko urriaren 29a

ESTATUTOA TA IRAKASKINTZA

Nai duanak euskeraz eta nai duanak gazteleraz ikasi dezake

Estatutoa ta irakaskintza

Nai duanak euskeraz eta nai duanak gazteleraz ikasi dezake

¡Entzun!

Estatutoak, gaur oker dauden arazo asko bide oneratu ta zuzenduko ditu. Auetako bat irakaskintza gaya.

Estatutoa izaten degunetik Bizkaya, Gipuzkoa ta Araba'ko irakaskintza arazoa Eusko Ikastola Nagusiaren eskutik ibiliko-da. Eta ez da gertatuko gaur gertatzen dan bezela euskaldun uts dan erri batean, inork gazteleraz ez dakin erri batean, irakaslea gazteleraz baizik ez dakiena izatea.

Eta onek garrantzi aundiya du; iñork uste baño aundiago agiyan.

Egin zagun kontu erri bat. Edozein. Erri orretako nexka-mutikoak euskeraz baizik ez dakite. Irakasleak berriz, euskeraz, "bai" edo "ez" itzak zer esan nai duten besterik ez. ¿Zer erakutsi bear die irakasle arrek berak esaten duana ulertzen ez duten nexka-mutikuei?

Ariko da nai ba-du lepoko zañak lertu arte; baña alperrik, ulertzen ez dutena ezin ikasi nexka-mutikoak. Irakasle onena izan diteke, ez du ezer irakatsiko. Nexka-mutiko argiyena izan diteke, ez du ezer ikasiko.

Eta au gure erri askotan gertatzen da. Tamalgarria benetan. Gero, euskaldunok ez-jakiñak garela esaten dute. Bai berriz ere eusko irakasleak Euskalerritik at bidali ta gure izkuntza ez dakiten irakasleak bialtzen badizkigute.

Baño Estatutoa izaten degunean ez gera eusko umeatzaz, euskaldunentzaz bakarrik oroituko. Urrutietatik guregana etorri ta gure artean bizibidea arkitu dutenen semeak ere ajola aundia ematen digute. Ez genuke gizonki jokatuko atzerritarren aur oyek kale gorrian utzita. Oyek ere izango lituzkete beren ikastetxeak. Eta orretan bi irakasle motak (euskaldun utsentzat eta erderaz dakitenentzat) izango giñukelako aurren gurasoak berai egokiena deritzayen ikastetxeak autuko lituzkete beren seme-alabentzat.

Euskaldun utsak, ba, erderaz ikasiko lukete ta ikasi bitartean, irakaslea beste irakasgayak irakasten ez litzake alperrik ariko, euskeraz irakatsiko lituke-ta.

Erdaldun guztik berriz (erderaz dakitenak esan nai degu) ala nai izan ezkero euskeraz ikasteko era izango lukete ta beren ikaskizunak agurogo egingo lituzkete.

1885eko abenduak 24 — ESCUALDUN GAZETA. — 1. zenbakia, 2. orr.

APACHE INDIO HORIEK

"Hombeste urthe hotan Apache indio horiek [Arizonakoak] harritceko da sombat malur eta crima eguiten duten eta hala ere governuyak estu deusik eguiten. Indiuek nehor harrapatcen dutelarik estute beste nacionek besala hiltcen. Indiuek harrapatuta buruko larruya kensen dute bisik direlarik eta emastekiak igual tratatcen diuste berek nahi dutena eguin onduan. Batzuetan buruco larruya kenduta arboler estakuturik usten tuste. Haur tipiak berris, sangotic har eta lurrari yoka hilsen tuste."

1924ko azaroak 2 — ARGIA ASTEROKOA — 185 zenbakia

Jolasak

REAL SOCIEDAD-OSASUNA. 3-0

Jende asko bildu zan igandean Atotxan donostiar eta naparren ostiketaldia ikusteko.

Torre jauna bizkaitar epailea txistulari zutela, bitakoak gogatsu asi ziran jokatzen: bañan laister erakutsi zuten donostiarrak, iruñarrak bañon askoz geiago zirela. Bost miñutu baño len Urbina'k bikain ta garbi lenbiziko guena (goal) sartu zuen. Txalo ugari ta sutsuak entzun zituan Urbina'k. Nire ustez txalo oyen erdiak Yurrita'k irabaziak ziran pelota ain egoki aurreratu zualako.

Ordu laurden igaro ondoren, donostiarrak lazotasun aundia izan zuten. Nagiz edo azpertuta zeudela ziruditen, eta ez dakit zer gertatu zitzaien. Aldi artan Iruñarrak gogortu ziran eta donostiarrak menperaturik zeudela ekin zioten ordu laurden batian: bañan alaz ere pelotarik atean sartu ezin, eskerrak Eizagirre atezai bikañari ta Galdos jokalari lasai ta artetsuari. Gañera, Osasuna'tarrak ez dute aurrelari eraginkorrik: pelota aurreratzen badakite, atera botatzen ez ordea. Gurrutxarrik une batian lasaitasun ta zurtasun apur bat izan balu, etziran utsik geldituko, pelotari aurrerantz bultzadatxo bat emanaz bakarrik sartua zeukan da.

Donostiarrak bizkortu ziran berriz eta Juantegi'k berak bakarrik bestên tartetik pelota eramanaz, zuzen sartu zuen ate-barrenera. Poztu ziran donostiarrak, ainbanatzeko (empatatzeko) arrixkoa aldendu zutelako. Beriala bukatu zen lenengo ekiñaldia.

Bigarren ekiñaldian ez genuen gauza aundirik ikusi. Ez batzuek eta ez besteak etziguten erakutsi jolasketaren edertasun gutxienik ere. ¡Ura bai zala naste-borraste!

Alakoren batean donostiar aurrelariak, lengoak zirala adierazteko edo, ongi elkarturik aurreratu zuten pelota eta Urbina'k sartu zuan berriz ere. Iru donostiarrak.

Ondoren, naparrai odola berotu zitzaien noski, ta… kirol bidea utzirik, borroka-bidea artu zuten. Pelota jotzeko erarik ez danean, ez da ostikadarik bota bear. Ori ez da kirol-zaleai dagokien bidea. Kirol-zale zintzoak garbi ta txukun jokaturik aurreratzen dute.

Donostiar batzuei ere zerbait esan bearra badegu. Oyu

ta deiadar egiñaz jokalariak ez dute ezer irabazten, ikusleak gutxiago. Iskanbila-zalên kontra izan gera beti; es jarraitu bada beren ikasbideari. Ongi da jokalariai txaloz ta aupaz adorogarriak ematea; zalaparta eta iskanbilez ez ordea. Iparraldeko bazkide--taldeak itz hauek beretzat artzen baditu ongi dijoaz.

Eta jokalarietzaz, zer? Donostiarren artean Yurrita lenengo: ekinaldi guzian gogoz ta kementsu jokatu zuen: berak bezin gogatsu beteak ere joaktu izan bazuten, 3'ren tokian 6 goal jarriko ziran noski. Urbinak ere gogor egin zuan. Galatas aldizka, sarritan utsak egiñik. Eizagirre ta Galdos oso ederki: bi auek Yurritakin batean goren jartzen ditugu.

Naparren artean, abaskal trebe ta bulartsua da, Onen ondoren Lusarreta, mugiro ta Goñi'k poliki jokatu zuten. Urkizu jokalari ausarti ta trebea da, bañan astuntxo azaltzen da.

Torre txistulariak noiz txistu egin badaki, alde bitakoai berdin begiratuaz.

J. AUŔERA

1923ko jorrailak 15 — ARGIA ASTEROKOA — 104. zenbakia, Igandea

EGUZKIAREN INDARRA

NEW YORK.- Diotenez, erri onetan saiaketa ikuspera bat egin dute, eguzkiaren beroarekin su-gurdi edo lokomotora bat ibiltzen jarri dute.

Aspaldian orren atzetik dabiltz, ia eun urte dirala janaria eguzkitan berotzea lortu zuten. Geroztik makina txiki batzuek ibiliazi dituzte.

Gaur bai dakite petroleoa hogei urte buru aituko dala, ta arrikatzak berreun edo irureun urte baño gehiago iraungo ez duala.

Ta arian-arian zerbait lortuko dute. Zenbait lore urte guztian bizi ditezen ikusi oi ditugun kristalekin estaltzen dituzte. Ta baten tokian baratz zaiek bi edo iru kristal gañezka jarriko balituzkete, landareak egosi egingo omen lirake.

ARGIA
ASTEROKOA

1924ko azaroak 23

BESTE ERRIETAKO BERRIAK

Errusi'tar boltxebiki, komunista, sobiets edo danadalako, ondamendia besterik ez dakarren oyek, mundu guzia azpiratu nai dute. Laterri edo nazio batzuetan sartu dira, eta beste askotan ere sartzeko darabilzkiten lanak ez dira txantxetakoak. Txina'ko gobernu berria boltxebikien aldekoa omen da. Grezia'n bildurrez daude, ango boltxebitarrak matxinada sortzeko agindua Rusia'tik izan dutela-ta Prantzia'ko Herriot'en Gobernuak ateak zabal-zabalik utzi dizkiete eta emendik aurrera boltxebitar guziak Prantzian nai duten erara ibiltzeko eragozpen txikienik ere ez dute izango; eta berak, errusitarrak, esan dutenez, Prantziak eman dien askatasunaz Italia'n sartzeko erreztasun aundia izango omen dute, aita Santu ta Batikanoaren kontra beren alegin guziak zuzentzeko, auek dirala komunisten etsairik aundienak-eta.

Beraz, errusitar boltxebiki oyek, beren zabalkundea aurrera daramate; eta eragozpideak gogor eta garaiz artzen ezpadira, guziok gaizki, oyen asmorik sendoenak Eleiza ta erlijio guziak ondatzea da-ta.

1921ko jorrailak 24 ARGIA ASTEROKOA 1. zenbakia, Igandea

ERRUSIA ALDIAN IRLANDARRAK

ERRUSIA ALDIAN

Naste ikaragarria dago, istilu gorria. Erreboluzioa sortu zanean errege-erregiñak il zituzten. ordurarteko bizimodua txarra bazan oraingoa ez da hobea. Lenine ta Trotzky izenak onezkero entzungo zenituan, irakurlea. Oiek ziran orduko erreboluziogile buruak. Gaur ere buru dira. Amaika txerrikeri egin dituzte bere komunismoa dala-ta. Aiek ankaz-gora-zaleak eta aiek nagusi dirala berak botatzera dijuazen guztiak erreboluziogileak dira berriz, gauzak onela izaki. Sortu ziran alako ankazpera-zaleak, Cronstad ta Minsk errietan gogor ekin ziotenak. Baño alperrikako lana... gogorrena alkate. Errusi aldi ortan demoniñua azkatuta ibili bear du.

IRLANDARRAK

Irlandarrak eta ingelesak alkar arteko gorroto bizia darabilkite. Irlandarrak bere etxean nagusi izatea ezin lorturik al bezalako indarrakin inglesen aurka dabiltza. Egunero tiroz ildakoak badira. Irlandarrak atzera egiteko asmorik ez zaiete bururatu. Dublin'eko (Irlanda'ko erri nagosia) etxeormaetan jarritako paperetan erabaki ori azaldu dute. Naiz kartzela dala, naiz urka, naiz eta arrapatutako irlandarrak polizoakoak gordetzen aurretik eraman, dana-dala, irlandarrak ez omen dira geldituko beren aldizkako burruketan. Northeliffe jaunak, ingelesa bera, indarrezko bide oietatik ezin litezkeala irlandarrak menperatu, esan du. Mundu guztiak orrelako nagusikeriak begi txarrez ikusten duala ta atzerrian orrelako gauzak izan diranean berbera gaizkitzatz eman izan dutela. Alkar aditu bear litezkeala dio. Bourne kardenalak ere Ingalaterra'ko nagusiei gudariak ateratzeko eskatu die, pakea egingo bada. 68 mila ba omen dira gudari edo soldadu ta poliziakoen artean.

1

1931ko urriko 18a

BARTOLO TA MARI IÑASI'REN PASADIZUAK

ASTE ONTAN TXIRRITA'K JARRIYAK

- Jaungikuak egun on dizuela, Ma'Iñasi,
¿zer zabiltza zu emen makilla ta guzi?
- Ardi kontu, Bartolo, nai banazu ikusi, beste ofizioyorik ez nuan ikusi.

2
-Ez aldezu artu biar,
Ma'Iñasi, gizonik?
bizi modu obia
jarriko dizut nik.
-Ez daukat dirurik
eta ondasunik,
ez det uste, Bartolo,
zuk naiko nazunik.

3
-Zu egonagatikan
arlote ta pobre
zenbait aberets baño
neretzako obe;
atoz, zauden bezela,
xentimorik gabe
ta zu egingo zera
nere gauzen jabe.

4
-Ni izan agatikan
etxe pobrekua,
badakizu naizela
biyotz noblekua,
beste batzuek baño
konduta obekua,
zirri bat iñork
egin gabekua.

5
Berrogeita biña urte
zaizkigu kunplitu,
iya bada garaya
nai bada muitu,
berel berelakuan
berel berelakuan
etzera kupitu,
Jainkuak bestek eztu
nik ainbat sufritu.

6
Arreba monja juantzait,
¡au da desgraziya!
fameliyan dadukat
indar eskasiya,
orañ ipintzen dizut
komenientziya
zuria izateko
nik dedan guziya.

7
Iru bei ta ogei ollo,
zakurra ta astua,
lau katu eta bi auntz,
¡zer bizi poztua!
morroi bat artuko det
pulamentuzkua,
ez dago sayatzeko
paraje gaxtua.

8
Etxia neria det,
baditut bi txerri,
baita mendiyan ere
berrogei bat ardi,
pobria izan arren
azaltzen naiz argi,
zor artzekuak kito,
kontuetan garbi.

9
Bi azipa bizi giñan,
aita eta ama,
bestiak gobernatzen
nik bakarrik lana,
ayentzat justu justu
sortzen nuen dana,
irabazi orduko
aurretikan jana.

Bartolo ta Mari Itsu'ren pasadizuak

10
Aste batian illak
aita eta ama
ta aizpa "reumak" artu
ura gure lana
izeba batek artu
zuan beregana,
zerbait biar zanian
beti neregana

11
Sokorritutzen nuen
onradamentian,
negar egiten zuen
begiyak betian,
orañ bi illabete
sartu zan lurpian
galanki sufrituta
amarbat urtian.

12
Ez bagera sayatzen
ez dago gauzonik,
ez dezu adituko
alperra naizenik
egiñala guziya
egingo dizut nik
nere partetik ezta
galduko gizonik.

13
Bartolo arkitzen zan
estatu motxian
iñor emakumerik
etzaukan etxian,
dudan ibilli gabe
denbora luzian
illabete baño len
esposatu zian.

14
Orra pasadizuak
guk adierazi,
sayatzen danak eztu
burlarik merezi;
orañ egin biagu
lengo penak utzi,
alkar istimatuaz
ondo ondo bizi.


Première Année. — N° 1 Le Numéro : 5 centimes Vendredi 8 Janvier 1904

ESKUALDUN ONA

1906ko apirilaren 6a

LANGILE NAHASIAK

Vendredi 6 Avril 1906

Langile nahasiak

Erran dautzuet, azkeneko aldian, zer gerthatu zaion *Clémenceau* ministroari ipharaldeko langileekin; nola, *Clémenceau* ministro izan ala bertze bat, langile hoik berdin aitzinat joan gogo duten beren nahaskerietan. Beraz jaun horren espantuak sartucheak dire, eta ez zaiote gehiago han agertu.

Bada oraino langile hoitarik hainiz beren lanari lotu nahi ez direnak, eta han dabilza ez dituztela utzi behar bertzeak lanerat joaiterat. Hortarik gataska izigarriek, lana utzia dutenen eta ez dutenen artean. Egun hautan, nola nahasi zenbeit jazarri baizaizko bere lanerat zoan bati, hunek bertzela ezin ihardokiz, tiro egin du eta hil nahasietarik bat. Batzuen eta bertzeen arteko makhurra ez da hortarik chuchendu; nehoiz baino gehiago bada orai, eskualde hartan, soldado andana handiaren beharra.

Ez dire, lehenago bezala, langileak beren nausien kontra bakharrik, bainan langileak dire elgarrekin makhurtzen. Ikhusirik nola deputatu zozialistak jende cheheaz trufatzen diren, langile hainitzek ez dute gehiago hoien meneko nahi, jaun hoik manatzen dutenaren arabera lana utziz eta lanari lotuz. Hemendik aitzinat, berek nahi dute beren buruen nausi, lana uzteko, berentzat hola hobe dutela ikhusten badute, eta ez jaunskila tchar batzuek hola manatzen badiote.

Ba omen dire orai, Frantzia guzian, bortz ehun mila langile elgarrekin batasun bat egina dutenak, ez gehiago deputatu zozialisten eskumakil izaiteko. Ederki hori. Boz-emaile hoik guziak gutiago izanen dire zozialistentzat. Ez da dudarik emendatuko direla oraino; ezen arras zozoa behar da, orai arte gerthatuak ikhusirik, bethi aitzinat sinhesteko deputatu zozialist hoik langile gaizoen onaren ondotik dabilzala. Jaun hoien gogo bakharra hauche da: deputatu-kargurat nolazpeit heltzea, eta hortako sinhets araztea langileen adiskideak direla. Bai adiskide girgisak, on baino kalte gehiago egiten dioten adiskideak! Aski da ikhustea eia, beren lana utziz eta nahaskeriari lotuz, langileek irabazten ala galtzen duten gehienik. Hainitzak ohartuak dire hobe dutela berentzat, holako adiskideeri ez jarraikitzea.

ESKUALDUN ONA

1905eko maiatzaren 19a

EZ ASKI GORRI

Eskual-herrian orai ditugun jaun deputatuak ez omen ditugu aski gorri. Hauk baino gorriagoak baginitu, hobeki omen ginezake. Zer nahi laguntza eta fagore ardiets omen ginezake, hauien orde baginitu deputatu gorri huts, Berdoly zenator orok dakigunaren irudiko batzu: lege tzar egin eta egiteko guzien alde boza bi eskuez eman lezaketen gizonak; bainan gero, gero, gerthatzen dena gertha; Frantzia dohakabea errekak behera joanen bada ere, anhartean framazon buruzagietarik, zuzen edo makhur, asko eta asko diru pozi, bertzei khenduz (ez berenetik, ez!); asko bide lan, prozeberbal hauste, 28 egun kentze, eta holako.

Holako zurruburru batzutan truk beren eta bertzen kontzientzia sal; eta debruak daramatzala oro, ferafutro: erlisione, familia girichtino, bake on, haurren arima eta demuntren guziak oro. Laguntza pegeseria pozi batzu ea baditzkegunetz, eta gaineratikoak oro, ez balire bezala.

Hortakotz, orai ditugun deputatu gorriek ez omen dute indarrik aski. Lehen, churiak ziren churiegi, laguntzen ardiesteko. Oraiko gorri hautarik behar ginuen orduan, ez dakit zer!... bazen espantu.

Eta orai? Orai hauk ez on gehiago; higatu naski. Ez aski gorri. Hauk baino gorriagoak behar izendatu sarrichago nahi badugu gobernamendutik laguntzarik ardietsi.

Ez da bertze ikhustekorik deus: LAGUNTZAK. Laguntza emaile edo hitzemaile hura izanik ere den eta ditaken gizonik galduena, galgarriena, ustelena, aspaldiko ministro buruzagiak ditugun bezalakoa, hari bazizik ez behar behatu. Harri jarraiki, hura sinhetsi, bakharrik hura. Ez da oraiko. Preseski raiko hauk churien ordain jarri zirenean, musika ber-bera zen.

Zenbaitaldiz erran ere ba guk orduan: hauien ondotik gorriagoak jinen zirela, elhe eder berekin zilhoan barnago gure sartzaile.

Irri egitern zioten orduan gure erranari. Ba sarthu ere baitzaizte geroztik irriak, eta oraino barnago sarthuko, itchura guzien arabera.

Merezi zutena baizik ez dutela erraitea ahal ginuke, berak balire bakharrik saltsaren erdian. Saltsa berean baikara ordean gu ere; ba eta behera sarthuak, lephoraino.

Jalitzekotz, bermatu behar, eta elgar lagundu azakarki. Nola hori? Beha etsaiari. Harek tzarreko egiten duena, egin guk oneko alderat. Beha nola tokitan ahal duketen guzietan, hala nola Donibane-Garazin, Ustaritzen, Donapaleon eta Laburdin baino gehiago Bachenabarren, herririk ttipienetan bardin "comités republicains" izendaturiko bilkhura batzu egiten daitzuten. - Zerteko? - Oh! segur, heldu den urtheko bozei buruz indar biltzeko. - Zer indar? Morrochko Harriague, Legrand, Pradet eta brigada guziaren debruetan harat igortzeko. Hoien orde gorri gorriago batzuen ezartzeko. Chede hori ez dute oraino garbiki agertzen; bainan hortara doazi.

Framazonen egitate guziak oro begiak hetsirik onhesten ez dituztenak oro erhautsi nahi lituzkete.

Hortako dabiltza etchez etche, herriz herri, jaun errientak aitzineko, jendea bildu nahiz, beren "comités" tzar hoitarat.

Hori oharturik dire hoitan uste gabez ja sarthuak zirenetarik leherra jali, usain tzarra zuela saltsak ezaguturik. Bertze frango jaliko, beren onetan, chede onik balinbadute. Guk argitu eskasean, behinik behin, ez dira egonen.

Hain chuchen, solas hau hemen deramagularik zathorko Garazitik berria, bilkhura tzarreetarat jendea bildu nahiz dabiltzanak bezala, badirela oneko alderat ari direnak ere. Ba eta lege tzarren kontra petizione baten sinarazteko beren buruen agertzeari beldur ez ahalge ez diren gizonak badirela holetan Bachenabarren. Biba hek! Ordu zen egiazki.

Eta Euskal-herri guzian, Frantzia guzian horrela etsaiari jazartzeko zainik aski, kopetarik aski ukhanen duten gizon andana handi bat noiz ikhusiko dugu?

Bonbardaketak

EGUNA

Bilbao'n 1937'go joŕailla 28gna. Eguaztena

GERNIKA, EUZKOTAŔEN URI MAITEA BIŔINDU NAI IZAN DABE ZEARO

GOŔOTOA!

Bizkaya'ko beste uri eder bat ezereztuta ta birrinduta utzi dauskue paxistak. Atzokoan Tabira zan goizean goiz unetxo baten zuzituta laga ebena; arañegun ostera, Gernika, euzkotarron uri kutun, leku maitagarriena triskauta idoro dogu.

Ez kalerik, ez etxerik, osorik laga dabe paxisten egazkin madarikatuetako bonba edentsuak. Bideak apurtuta dagoz, eta keia, autsa eta negarra baino ez dogu aurkitu, ondamendi ondorenean, Gernika'ra arin baño ariñago jo dogunean.

Euzkadi'ganako gorrotoa egundo ez dabe ezkutatu ez gorde, eta oraingoan euren indar osoaz agertu izan dauskue goroto ori.

Eriotzea euzko-erri osoaz jaubetuteko alegiñetan ari dira, baña euzko-erria lena da orain ere, ez da aldatu, eta egingo ere ez.

LAU ORDUKO SUAGAKETA

Etxe gitxi gelditu dira ukitu barik Gernika'n. Alde geienetan jausi ziran bonbak, eta etxe ta eleiza, ibiltoki eta gexoetxeak zuzituta gelditu dira geyenak.

Udaletxea zana goi ta be, lorriña ta autsa baño ez dogu orain, eta leku itzaletakoa izango dabe gernikar askok berau.

Eleizak ere su ta gar agiri dira keia ta odola besterik ez dabela.

Lertzeko bonba pillak jaurkitzen ekin eutsen egazkiñak, gero, su-emalleak ere ugari bota zituen, eta uria ezereztatuta laga eben zearo.

EGUNA

Gernika, euzkotarren uri itxaller, bitxiñ nai izan dabe zearo

Alde batetik bestera Gernika illotz mutuldua dirudi.

Biaramonean ere, ketan egon dira etxe asko, osoro erre arte, zeatz birrindu arte gizonen gaiztakeria agertzen bai'legozan.

GUDOÑETATIK UŕUTI

Arratsaldeko lau ta erdiak aldean agertu zan lenengo egazkiña Gernika gain, eta kanpaiak jo zituen. Orduan, jendeak gordelekuetarantz egin eban.

Egin bakar orrek bonba batzuk bota ondoren alde egin eban. Baña ba-ebazan lagunak be bere atzean.

Berealakoan, beste bat agertu zan, eta hurrengo beste bat, eta geyago ta geyago banaka. Sugaketa eta eizeko egazkiñok hogei bat bildu ziran eta jo ta ke, bonbak bonba botaten asi ziran.

Gernika osoan, alde guztietan bonba eta suagak besterik eziran izan iru lau orduan. Bazter guztiak sutan eta jausten asi ziran berealakoan.

Etxe eta eleizak garretan ziran. Jon Deuna eleizaren goirik ezan agiri, su ta ke artean.

Uriaren erdi alde osoa eta inguruak sutzar egiñik laga zituen.

Illuntzera arte, ordea, egazkiñak eurenari ekin eutsen. Lau ordu luzetan botatako suagak zenbat izan diran ez dogu jakin, baña uri ezereztuak argi asko agertuko dau munduaren aurre gudoiñetatik urruti dagon uri edegi bateri egindako eraso zitala.

ONDORENAK

Gau lenean, su artean argi egiten eban erri aretako etxeak. Agindariak beingoan asi ziran bear bearreko lanetan: Jaurlaritzako burukide batzuk antxe ikusi genduzan.

ILAK

Lantxo au egiten diardugun unean, ilak izan diren notiñen erreskadea osotuteko daukela esan dauskue Erri-Zaiketa'n.

Ez dakigu ziur zenbatgiño izan diran ilak uste-uste bako suagaketa orretan. Erreskada luze samarra izango dala deritxagu, edozetara be; alabaña, erria ikusita bakarrik emoten daben beste ez al da izango.

Erreskada orixe artu baizen laster argitalduko dogu, baña.

Paxisten egitada deunga onek bein barriro mindu gaitu barru-barruan. Ainbat baserri ta uri birrindu ondorean, erri zoragarria ondatu dauskue, euzko azkatasun ikurra dauan lekua, euzkotarron Areitz donea!

ZAURITUAK

Erri Zaiketan zaurituen erreskada bat emon dauskue. Baña, zaurituok, Basurto'ko gexotegira jaso dituenak bakarrik dira:

Jayo'tar Joseba Iñaki, 46 urte.
Irusta Urienagoena'tar Domeka, 86.
Arribas Garcia'tar Kepa, 49.
X. X., ogetabi urte inguruko gizonezko bat.
Ugalde'tar Ilari, 19.
Jimeno Tejero'tar Pilipa, 45.
Garitaonandia'tar Erromalda, 15.

ESKUALDUNA

1937ko maiatzaren 7an, ortziralea

GUERNICA

Eskualdun guziek maite dute Guernica eta Guernicako arbola. Guziek bihotzminekin jakin dute makur gaitzake gin dituela hor gerlak, Molaren soldadoek hartu aitzinean.

Bilbaoko berriek zioten Aleman aireplanek izigarriki tirokatu dutela.

Churiek aldiz ezetz, gezurra diotela, hor igorrien beren lana dela. Irunen bezala Eiba-

rren bezala, orotan bezala.

Bainan han ziren jendeek salatzen daukate eta Aguirre, Euzkadiko buruzagiak, jakin arazten dauku, hiru orenez iraganik, aleman aireplanek aldizkatuz beren bombak aurthiki dituztela hiriaren gainerat. Merkatu eguna hain chuchen zembat jende ez da garbitu hor?

Ni nago Alemanek bethi obeditzen dutenez Francoren manuneri eta ez dutenez bethi bezala uzten zarkeria nagusi.

Guernicaco arbola ez omen dute haatik hunki. Molaren Eskualdunek zaintzen dute arbola saindua.

Geroztik izan diren kaseta egilr Frantsesek diote gorriek berek dutela eman sua, hunsn egin zuten bezala

ESKUALDUNA

ORTZIRALEA MAIATZAREN 2an VENDREDI 7 MAI 1937

Guernica

Eskualdun guziek maite dute Guernica eta Guernicako arbola. Guziek bihotzminekin jakin dute makur gaitzak egin dituela hor geriak, Molaren soldadoek hartu aitzinean.

Bilbaoko berriek zioten Aleman aireplanek izigarriki tirokatu dutela.

Churiek aldiz ezetz, gezurra diotela, hori gorrien beren lana dela. Irunen bezala Eibarren bezala, orotan bezala.

Bainan han ziren jendeek salatzen daukute eta Aguirre, Euzkadiko buruzagiak, jakin arazten dauku, hiru orenez iraganik, aleman aireplanek aldizkatuz beren bombak aurthiki dituztela hiriaren gainerat. Merkatu eguna hain chuchen zembat jende ez da garbitu hor ?

Ni nago Alemanek bethi obeditzen dutenez Francoren manueri eta ez dutenez bethi bezala uzten zarkeria nausi.

Guernicako arbola ez omen dute haatik hunki. Molaren Eskualdunek zaintzen dute arbola saindua.

Geroztik izan diren kaseta egilr Frantsesek diote gorriek berek dutela eman sua, hunsn egin zuten bezala.

ESKUALDUNA

JOURNAL BASQUE-FRANÇAIS HEBDOMADAIRE

1944ko maiatzaren 5an, ortziralea

IDEA BERAK!

Guk choko huntan, bethi idea berak: kaskoan dugu Angles-Amerikanoek gituztela libratuko eta idea hori ez dugu utziko kaskotik. Badakigu jiten direlarik, denak cheatuko dituztela: etcheak, elizak, ospitaleak, jendeak, chahar eta gazte. Bardin munta du guk idea berak… errazu? Ez dea gizona bethi idea berekin behar? Emaztea kambiatzen da, bainan ez gizona. Guk idea berak.

ESKUALDUNA

ORTZIRALEA MAIATZAREN 5an VENDREDI 5 MAI 1944

Idea berak!

Bombak ari dira hurbiltzen: Parise, Bordele, miarritze eta gero? Noiz othe Donianeko merkatiaren aldi? Gure etchegno hoi aurtikitzen balute, edo hiltzen gure behor gazte hoi edo gure tropa joalten, orduan kambia ginitazke. Behar baa! Guk idea berak!

Giraud jenerala gizon gaitza zaukaten askok! Hoi duk hoi gizona! On va voir ce qu'on va voir! Horrek ezarriko tik gauzak hatzean Afrikan, bestenez ete Amerikanoek biziki berria die. Eta Amerikanoak gaitzak

tiuk, comme chacun sait…

Orai aldiz Giraud lurrean! Giraud petzero! Giraud deuxième classe, kaporalaren peko.

Bainan gu bethi idea beretan…

Le maquis eta la résistence horietan tiuk gure gizonak. Azkarki muntatiak dira, mitrailleta zer nahi badie et jenden hiltzen usatiak.

Orai jakina dugu, delako makistarrak eta resistanziarrak komunizten gizonak direla, eta odol hotzean hiltzen dituztela haurrak, emazteak, nagusiak, apezak eta idea bereko ez diren guziak. Hoi badakigu eta beste asko gauza, bainan Amerikanoer lothuak gira eta ez ditugu utziko.

Guk idea berak!

Hots! Gu bethi… sto berak!

LAURENDI

ESCUALDUN GAZETA.
EUSKARA
REVEIL BASQUE
ESKUALDUNA
EUSKALZALE
EUSKALDUNA
Ibaizabal
ESKUALDUN ONA
ARGIA
HERRIA
GURE HERRIA
BASERRITARRA
BIZKAITARRA
POXPOLIN
NAPARTARRA
EKIN
ESKUAL HERRIA

Euskal Herriko
prentsa
XVIII. mendetik 1945era
HERRIA
ARGIA